

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko, ezinbestekoa da baliabide estrategikoak identifikatzea, eta modu eraginkorren erabiltzea, gure enpresaren funtzionamendurako eta hazkunderako beharrezkoak direnak. Baliabide hauek era egoki batean funtziona dezaten, hainbat baliabide fisiko, intelektualak eta finantzario beharko ditugu:



Baliabide fisikoen helburua enpresaren funtzionamendua eta eraginkortasuna bermatzea da. Gure enpresak behar dituen azpiegiturak, ekipamenduak eta materiala. Hasteko, material ugari beharko ditugu: lokala, mahaiak, altzariak, kutxa erregistratzailea, aulkiak, ispiluak, alarma, eskaintzen dugun produktua... esaterako. Alde batetik, gure produktibitatea hobetzeko balioko digu. Beste aldetik, funtzionamendu jarraitua ziurtatu behar da, hutsune teknikorik eta logistikorik ez izateko, eta baliabide hauen kalitatea eta kontrola, zeren eta instalazio ekipamendu egokiek langileen segurtasuna eta produktuen edo zerbitzuen kalitatea bermatzen laguntzen dute.

Intelektualen kasuan, gure enpresaren izena eta logotipoa erabiliko dugu merkatuan ditugun produktuak edo zerbitzuak bereizteko eta bezeroek erraz ezagutzeko. Baliabide intelektual hauek ezinbestekoak izango dira, adibidez, marketin eta publizitatea, horretarako gai hauetan trebeak diren pertsonak ibiliko dira, kirolaren inguruak zaletasunak direnak ere beharko ditugu, kirolaren inguruan zerbait galdetzen badigute erantzuteko.

Baliabide finantziarioetan, guztira elkartu nahi dugun diru kantitatearen %50a guk jarriko dugu, baina beste %50a bankuari mailegu bat eskatuko diogu. Horregatik, bi finantziazio iturri ditugu: baliabide propioa eta kanpokoak. Guztira 50.000€ beharko ditugu. Alde batetik, taldeko kide bakoitzak 5.000€ jarriko ditu 20.000€ lortu ahal izateko lauron artean. Bestalde, funtsezko elkarrekin aipatu dugun bezala Sabadell bankuari 70.000€ko mailegua eskatuko diogu.